

LAUAXETAREN PENTSAMENDUA ETA JARDUERA

Sebastian Gartzia Trujillo

errian ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. *Unibertsitateko Biblioteka*

García Trujillo, Sebastian

Lauaxetaren pentsamendua eta jarduera / Sebastian Gartzia Trujillo. –
[Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen
Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2022. – 327 p. ; 22 cm. – (Euskal Literatura
Saila ; 24)

ISBN: 978-84-1319-.

1. Lauaxeta, 1905-1937.

929Lauaxeta

891.69Lauaxeta1.06



Liburu hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lagundu du eskuzabaltasunez. Eskerrik beroenak eman nahi diogu esku zabalez jokatu duelako eta proiektu hau lehen unetik begi onez ikusi duelako.

Euskal Literatura Saila bildumaren zuzendaria: Jon Kortazar

Azaleko irudia: Susana Jodra Llorente

Hizkuntza-orrazketa: UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Euskal Literatura Saila bildumaren ISBN: 978-84-9860-730-7

ISBN: 978-84-1319-

AURKIBIDEA

I. atala. <i>Biografia: Laiko(ago)a eta abertzale(ago)a</i>	11
Sarrera	11
1. Erlijioan errotua	13
2. Ikasketak	14
3. Literaturazale	16
4. Euskaltzale	18
5. Abertzale	21
6. La Academia Vasca	25
7. Filosofo	28
8. Zergatik uko egin zion jesuita izateari-edo	29
9. Lauaxetaren emaztegaia?	36
10. Bilboko lagunak eta eguneroko errutinak	38
Azken oharrak	39
II. atala. <i>Lauaxetaren bi erlijio-ordezkapenak</i>	51
1. atalburua. <i>Politikaren eta erlijioaren arteko ordezkapena</i>	51
1. Ordezkapen-erlijioa	52
1.1. Nazionalismoak eta ordezkapen-erlijioa	52
1.2. Euskal nazionalismoaren ordezkapen-erlijioaren abiapuntu eta bilakaera	56
1.3. Erlijioaren eta politikaren arteko ordezkapena Sa- bino Aranarengan → Lauaxetarengan	57
2. <i>'Absoluturanzko giza joera erlijioan eta politikan</i>	59
2.1. Absolutuen arrazoigarritasuna (rationabilitas)	65
2.2. Abertzaletasunaren absolutuak	67
2.3. Sabino Aranaren absolutuak	69
2.4. Lauaxetaren absolutu(ago)ak	72

3. Bikaintasun-irizpidea	74
Azken oharrak	75
2. atalburua. <i>Lauaxeta, ordezkapenezko jesuita (jesuita de sustitución)</i>	85
Jesuita ‘betiko’	85
1. Maisu, nora nahi jarraituko dizut (Mt 8, 19)	87
2. Dizipulu	91
3. Lekuko	92
4. Aberrigintzaile	94
5. Instituzioen aldekoa	95
6. Sare-eratzaille	97
7. Militante	99
8. Politika-aginpiderik gabeko liderra	101
9. Kazetari	103
10. Hizlari eta mitinlari	107
11. Irakasle	109
12. Literato	112
13. Ideologo	116
14. Erradikala	118
15. «Onein gurtzalia»	121
16. Gizartegintzan konprometitua	123
17. Emakumeen alde	125
18. Langileen alde	132
19. Immigranteei abegi onekoa	143
20. Sozialista (‘zozolisto’) eta komunistekiko erlazio zailak	146
21. Gora Euzkadi Askatatu(t)a	152
22. Gudari	157
Azken oharrak	163
III. atala. <i>Gu-tik Ni-rako jauzia: prosa-idazkietatik poesia-testuetara</i>	185
1. Batzuetan ‘ni’ (olerkietan), bestetzuetan ‘gu’ (hitz lauзокoe-tan)	186
2. Lauaxetaren bilakaera abertzaletasunerantz	187
2.1. <i>B - b</i>	187
2.2. <i>A - b</i>	189
3. Lauaxetaren afektibitatearen bilakaera	191
3.1. Bide-barriak	192
3.2. Arrats-beran	195
4. Lauaxeta bizipozaren (atseginare?) bila	199

5. Bizitzarekiko Lauaxetaren gogo-mina	202
5.1. Bide-barriak	214
5.2. Arrats-beran	217
Azken oharrak	218
 IV. atala. <i>Lauaxetaren erlijiositatearen eboluzioa bere olerkietan</i>	223
1. Lauaxetaren erlijiositatearen etapak eta ezaugarri orokor- rak.	223
2. Erlijiositatearen abiapuntua	228
3. Nola moldatu zen Lauaxeta erlijio-esperientziara?	232
4. Lauaxetaren <i>itinerarium</i> (mentis → cordis) <i>ad Deum</i>	234
4.1. Erlijiositaterako Lauaxetaren lehen etapa: «Gizaki ahul eroria laket artian»	235
4.2. <i>Bide-berriak</i> eta <i>Arrats-beran</i> -eko erlijio-poemak	237
4.2.1. <i>Per crucem ad lucem</i>	237
4.2.2. Sufrimenduaren bila dabilen gizaki erlijiosoa.	238
4.2.3. Jainko sufriarazlea	242
4.3. Ixatez ludi barna	244
4.4. Laugarren etapa: Garbaizko lorea	249
4.5. Bira antropologikoa: Introspekzioa eta giza barneko Iluntasunetik erlijiositateari berekitea.	253
4.6. Maitez gixon baitan	257
5. Erlijiositate indibidualista	258
6. «Miren Neskutza» otoiak	260
7. «Ziñiste-bakuaren(a)» otoiak	262
8. Gizarte- eta politika-olerkaria	265
Azken oharrak	268
 V. atala. <i>Lauaxetaren pasioa eta heriotza</i>	283
1. Lauaxeta atxilotua.	283
2. Erlijiositatearen gailurrerantzko xendran.	285
3. Lauaxeta epaitua.	287
4. Zertaz akusatu zuten Lauaxeta?	288
5. Gezurrezko lekukotasun bila, heriotzara kondenatzeko (Mt 26, 59)	291
6. Lauaxetak zelan defendatu zuen bere burua?	292
7. Lauaxeta kondenatu eta eraila.	296
Azken oharrak	297

VI. atala. <i>Lauaxetaren espetxeko olerkiak</i>	301
1. Azken etapa... berria	301
2. Erlijiositate-gailurraren inguruan	303
3. Martiria	304
4. Lauaxetaren erlijiositatearen azken bilakaera	307
4.1. 'Ni'tik → 'Zu'rantz: Gizakigandik Jainkoarenganantz	308
4.2. Indibidualismotik elkartasunera: 'Ni'tik 'Gu'ra.	310
5. Apokalipsia: «Zeru berria eta lur berria» (<i>Ap</i> 21 1.5).	314
6. Azken agurra	315
Azken oharrak	318
VII. atala. <i>¡Viva Jesús! Mi testamento</i>	321

I. atala

Biografia: Laiko(ago)a eta abertzale(ago)a

‘Gure patroia handia’ Ignazio bezala, ‘gure poeta handia’ Lauaxeta ‘Bide-barriaren’ bila.

Sarrera

Esteban Urkiaga Basaraz, ‘Lauaxeta’ (Laukiz, 1905.08.03-Gasteiz, 1937.06.25) euskal literatoetan handienetakoa dugu¹; zailenetakoa ere: «Lauaxetaren poesiak ulergaitzaren fama du»²:

- a) bai bere *adierazle* ez-ohikoengatik, *minorías selectas*-entzat egokiak: «Onein gurtzaile nozu»³;
- b) bai bere *adierazi* ez-erabiliengatik: «Orain arte erabili ez diran gaiak diralako gure liburuan»⁴;
- c) baita ikerketa honetan espresuki landuko dudan Lauaxetaren erlijiositate konplexuagatik-edo ere: Teologia ikus-

¹ Testu honetan idazleak olerki zein artikulurik gehienetan erabili ohi zuen ‘Lauaxeta’ goi-izena erabiliko dut. (1)

² KORTAZAR, J., «Sarrera», *Lauaxeta. Olerkiak*, Erein, Donostia, 1985, 14 eta 28. or. (2)

³ LAUAXETA, *Azalpenak*, «Orreri, orreri!», *Euz*, 33.02.16/8. (3)

⁴ LAUAXETA, *Azalpenak*, «Eztabaida», *Euz*, 32.02.09/7: «Neure idatziazkoa oker dago. *Bide barriak* baderitxot, ez da izkuntzagaitik, geiagogaitik baino... izen ori jarri neban».

puntutik Lauaxetaren idazkiak sakonki aztertu dituen Josu Penadesek honelaxe laburtu diguna: «Eguneroko bizitzarekin lotu nahirik bilbaturiko Jaungoiko-bizikizuna. Neoeskolastikaren oskol pisutsua eta teologia eredu bizigarriagoren ezagutzarik eza»⁵.

Alde biotatik: literatura- eta erlijio-aldetik, **Lauaxeta idazle** interesgarria (berrizalea) zaigu. Euskal idazleetan interesgarrienetakoa omen: «Horrela bide berriak irekitze-lanean sarri askotan jazo ohi denez, aurkari ideologikoekin ezezik, ingurukoekin ere izan zuen arazo bat baino gehiago bere ausardiagatik»⁶; konplexuen(etako)a ere bai:

- batetik, *bide berriak* irekitzen ahalegindu zelako: «¡Ogetamar urte onetan euzkerek egin daun aurrerakadea ezta makala! Barri zaliai eskerrak»⁷;
- bestetik, *intentsitate handiz* aitortu, landu eta bateratu zituelako (baterarazten ahalegindu) inor askori eztabaidagarriak izan zekizkiokeen *euskal abertzaletasuna* eta *kristau erlijiositatea*;
- hirugarrenik, 31 urte zituela erail zutenez, bere pentsaera helduarora iristeko denbora nahikorik eman ez ziotelako: «sintesia egin gabeko pentsaera zela berea»⁸; eta,
- azkenik, epe laburrean, **Lauaxetak kultura-, gizarte-, politika-** eta erlijio-arloetako *esperientzia gogorrak* sakonki eta era konprometituan bizi behar izan zituelako, lehiakide bortitzen kontra eta lagunkide ahulenen alde (herri txikien patua?).

Bestalde, Lauaxeta bi munduren arteko *mugalaria* izan zen⁹: alde batean, euskal nazional katolizismoa: *Jainkoa ta Lagi zarrara* eta, bestean, euskal modernitatea (euskal olerkarien artean lehen[etako]a?)¹⁰: «Su temprana muerte truncó una obra cuya ma-

⁵ PENADES, J., *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1996. Ohar pertsonala.

⁶ Interes handi horren frogara dira *Lauaxetaren literaturaz eta erlijiositateaz* burututako ikerketa-lan eta artikulu ugariak. (6)

⁷ LAUAXETA, *Azalpenak*, «¡Orreri, orreri!», *Euz*, 33.02.16/8. (7)

⁸ PENADES, J., *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena*, o. c., 318-9. or. (8)

⁹ *Ibidem*, 349. or. (9).

¹⁰ Lauaxeta bizi izan zen bitartean, EAJ alderdi katoliko konfesionala izan zen (1977. urtera arte) Lauaxeta gustura sentitzen zen EAJren konfesionaltasunean.

durez hubiera podido suponer la necesaria occidentalización de la poesía vasca»¹¹.

Nazionalismoaren eta modernitatearen arteko sintesi koherentea bereganatzeko ahaleginean, «badirudi Lauaxeta erdi-bidean aritu zela, batera eta bestera, erabaki garbirik hartu gabe-edo. Kontuan izan behar da, baina, hezkuntza edo prestakuntza sendo zuelarik ere, bizi ahala joan zela bere pentsaera bilbatzen»¹².

Lauaxetak, *Bide – berriak*-eko lema zainaren antzera, «soñutzik ontzi-puntan... / itxaso-barne nua zidor ezezaunen-gain. / ... Bide barriak nai-dauz abendaren kezkeak... Zabaldur osertzeak!»¹³.

‘Lagi zarretik bide barriak’erako ahalegin bikoitz horretan, Lauaxeta gazteak, Bibliako justuak edota jesuiten nobiziatuan eredu izan zuen Kostakako Estanislao gazte santuak bezala, «denbora laburrean heldutasunera iritsi eta bizitza luzearen betetasuna lortu zuen» (*Jkd* 4, 13), ez soilik erlijio- zein euskal literatura-arloetan, euskal gizarte- eta politika-pentsaera eta zereginetan ere bai.

1. Erlijioan errota

Esteban Urkiaga Bizkaiko Laukizen jaio zen 1905eko abuztuaren 3an. Jaio zen egun beretik guztiz giro erlijiosoan murgilduta bizi izan zen bizitza osoan. Osaba Frantzisko Urkiaga abadearen eragin eta etxeko giro erlijiosoagatik, umetxoari, oso goiz, fraide izateko gogoa biztu zitzaion (bizarazi zioten?)... eta Estebanek giro horretan (sotana artean, alegia) iraun zuen 23 urte bete arte. Guztira, bere bizitzaren %70-edo¹⁴.

1909urtearen inguruan, Urkiagatarrek Laukiztik Mungiara lekualdatu ziren, lau haizetara zabalik zegoen etxe bakar batera. Hori zela eta, lagun abade batek ‘Lauaxeta’ **ezizena** asmatu zion familia-etxeari deitzeko, Estebanek idatziko zituen testurik gehienetan bereganatuko zuen goitizena¹⁵.

Hasieran, Esteban umeak karmeldar izateko gogoa adierazi omen zuen, baina osaba Frantziskok bera bezalako elizbarrutiko

¹¹ SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, Akal editor, Madrid, 1976, 151-152, or. (11)

¹² PENADES, J., *Lauaxeta, historian bezurmamituriko sinesmena*, o.c., 318. or.

¹³ LAUAXETA, B.-beto «Itxasora!».

¹⁴ IZTUETA, P. «Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan», *Euskera*-50. liburukia (2. aldia), 2005, 628. or. (14)

¹⁵ KORTAZAR, J., *Lauaxeta. Biografia politica*, o.c., 12. or. (15)

abade izateko bideratu nahi izan omen zuen. Asmo horrekin, lehenik, Mungiako lamenetar anaïen Ventades eskola erlijiosora bidali zuten¹⁶, abade-karrera distiratsua egin ahal zezan asmoz. 12 urtetik aurrera, hiru urtez, Florentzio Galarza apaiza jarri zioten «eskolaz kanpoko tutore»¹⁷.

Lamenetarrekin Humanitateko hiru ikasturte egin eta gero (1917/18-1919/20), **osaba Frantziskoren aholkuei jarraituz (osabak ordainduko ote zituen ilobaren ikasketak?)**, 1920an(?), Esteban Durangoko jesuiten ikastetxe apostolikora bidali zuten, 'barneko' ikasle gisa¹⁸.

1932ko artikuluko batean, **Lauaxetak kontatzen digu nola Durangoko ikastetxe apostolikoaren ikasleak Mañariko ingurura joaten ziren**, non, behin batean, halabeharrez, Ebaristo Buztinza «Kirikiño» idazle ospetsu eta abertzalearekin topo egin zuten: «Mañaria»n iltegi apala datza. Iltegi orren barruban sarri otoi egin dogu, ez Irakaslia (Kirikiño) ilta gero (1929), artian be bai. Orain urte asko dira (1920-21eko ikasturtean?), Udabarriko arratsalde eder bat zan. Gurdibilez jua nintzan eta antxe idoro neban Kirikiño. —Nor zattut gastetxu? —Inor ez. **Euskeraz ikasten inardudan bat**. —Politto berba egiten dozu ba? Euzkeldun barri bat zara? —Ez euzkaldun-barri ez. Txikitan euzkerea itz-egina nozu, gero, gero baña aztu yatan. Eta euzkereatzaz itz-egiten jardut geban. Lenengoz eta azkenez ikusi neban gixon maitagarria»¹⁹.

2. Ikasketak

Lamenetar anaiek eta, batez ere, jesuitek baserri zaharkitu batean jaio eta hezitako Estebani hezkuntza modernoa eman zioten, euskal tradizioaren eta europar kulturaren arteko mugalari izateko formakuntzarik aproposena.

Durangoko jesuiten ikastetxean, Estebanek urteroko gogo-jardunaldiak, asteroko aitortza, eguneroko meza eta jaunartzea, katekesiak eta abar egin ohi zituenen gain, «latin eta erretorika izan ziren ikastetxeko ikasgai nagusiak, gaztelera eta grekoa ere ikasten zituen»²⁰.

¹⁶ Menesianoak edo Ploërnél-go Kristau Heziketaren Anaïak. (16)

¹⁷ IZTUETA, P., o.c., 629. or. (17)

¹⁸ *Ibidem*: «Bokazio erlijiosoetarako mintegi» izateko xede espezifikoeekin funtzionatzen zuen».

¹⁹ LAUAXETA, *Azalpenak*, «Kirikiño», *Euz*, 32.04.17/5. (19)

²⁰ PENADES, J., o.c., 30. or. (20)

Durangon zegoela, Estebani jesuita izateko bokazioa sortu zitzaion (sorrarazi zioten?) eta 1921eko uztailaren 23an Loiolaratu zen nobizioaldia hasteko.

1921-1923 urteen bitarteko nobizio-aldia hasi aurretik, Lauaxetak formulario bi bete behar izan zituen: 'Nota handiak' eta 'Nota txikiak' direlakoak. Lehengoan, «nobiziogai bakoitzak beren etxeko familiaren, ikasketen, bokazioaren eta osasunaren berri ematen zuen eta bigarrenean, Lagundiaren zerbitzura jartzeko bere hitza ematen zuen. Lauaxetak misiotara joateko gogo berezia agertzen du»²¹.

Loiolara joan eta astebeteko probantza gainditu eta jarraian, Lauaxetak, 16 urte bete gabe, nobizio-aldia hasi zuen 1921eko San Ignazio egunean: «Badirudi lehen bi urteetan, nobizio ona izan nahiak edo izan beharrak hartzen zizkiola ordu guztiak. Ikaskide izan zuen Iñaki Goenagak kontatzen zidanez, nobizio-urteak gogorak eta latzak izaten ziren. Eguketako gogo-jardun luzeak, eskean ibili beharra izaten zuten hilabetea, eta ospitalean gaixoak artatzen eman beharreko aldia aipatzen zizkidan. Eskeko hilabeteen inguruko herrietara joan beharra izan ohi zuten eskean, bildutakoa irisiten ziren herri edo hiriko erretoreari eman beharra izaten zutela. Ospitaleko hilabeteen gaixorik urrikgarri eta higuin-emangarrienak zaindu beharra izan ohi zuten beren burua apaltzen eta Jesukristo behartsuaren tankera hartuz joan zitezten. Ez da, bada, zer harritu, bestetarako astirik ez bazuen. Lauaxetak misiotara joateko gogo berezia agertzen du»²².

Nobizio-aldiak irauten zuen bi urteetan, Lauaxeta erlijiositatean eta literaturan trebatu zen, euskaltzaletasunean ere eta, gehiagotxo kostatu zitzaion arren, abertzaletasunean ere bai. Lauaxetak, Loiolan ezagutu baitzituen «urte batzuren buruan euskal munduan lanik dextente egingo zuten lagunak: (Erraimun) Argarate, urretxuarra; Iñaki Goenaga, azpeitiarra, Andima Ibinagabeitia, elantxobetarra; (Felix eta...)Korta anaiak, azpeitiarrak; Luis Larrañaga, azkoitiarra; Martikorena, beteluarra, Plácido Mujika, urnietarra; Sarobe, lesakarra; Jokin Zaitegi, arrasatearra; Felix Zubiaga, zeinen heziketa-arduraduna Aita Marin Garmendia tolosarra izan zen»²³...

²¹ IZTUETA, P., o.c., 631. or. (21)

²² *Ibidem*, 633. or. (22)

²³ SUDUPE, P., *Iokin Zaitegi, Bidegileak*. Iokin Zaitegiri egotzitako paragrafoa, adin- eta nobizio-kide izandako Urkiagari ere egotz diezaioketula uste dut.

Nobizio-aldia bukatu eta segituan, Lauaxetak, 18 urte bete hurrean, betiko boto txikiak egin zituen: pobrezia, kastitatea eta obediencia²⁴.

3. Literaturazale

Nobizio-aldia egin eta jarraian, Estebanek hiru ikasturteko iunioratu-aldia burutu zuen Loiolan (1923-1926).

Jesuiten junioratu-ikastetxea kultura klasikoa eta modernoa ikasteko leku ona izan zen (Euskal Herriko eta Espainia osoko ikastetxerik onen[etako]a?): «Giza-elertiako ikasketei zegozkien ikasgaiak arakatzen arituko zen, hau da, latin eta grekozko klasikoak, Espainiako eta mundu zabaleko literatura, etab. ikasiko zituen. Latin eta grekozko irakaslea Aita Errandonea izan zuen: 'Elade eta Erroma zaharreko klasikoak nahiko ondo ezagutzen genituen. Egia esateko, irakasle onak zeuden orduan Loiolan. Errandoneak —tesia doktorala Oxford-en Sopokelen gain eginda zeukana— Sopokel, Kikero, Platon, Euripides, Demostene eta beste idazle, olerkari eta hizlari klasikoen lan ederrak erakutsi zizkigun', eta gainera Shakespeare, Vieira brasildarra, Kolombia-ko ta Txile izlariak. Zena zela, poesia zen haren janaria, poesia haren arnasa eta bizi-zergatia ere. Ikustekoa zen zernolako joarez irakurtzen zituen eskuartean erortzen zitzaizkion olerki liburuak oro naiz laterazkoak izan, naiz erdazkoak edo frantsesekoak»²⁵.

Hizkuntza eta literatura klasikoez gain, Estebanek, batik bat aita José M.^a Estefaniaren bultzada eta gidaritzapean, literatura eta hizkuntza modernoak ere ikasi zituen²⁶: «Aita Estefania bizkaitarrak —Goetherengan berezitua— mundu guztiko literatura ezarri zuen gure aurrean: Trueba, Iturribarria, Etxegaray, Mistral, Verdaguer, Maragall, Goethe, Longfellow, Musset, Sully Prudhomme... ezagun genituen. Horiez gain, Estefania-k Bergili-ren Eneida, Orati,

²⁴ IZTUETA, P., «Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan», o.c., 638. or.: «"Nota txikiak" izeneko agiriaren atzekaldean datorrenez, Esteban Urkiagaren boto-berritzeak Loiolan otsailaren 3an eta abuztuaren 3an izan ziren, eta 1923an, berriz, urtarrilaren 30ean eta abuztuaren 2an».

²⁵ IBINAGABEITIA, A., «Adiskidetasun lokarrekin», *Eman*, *Cuadernos vasco-americanos* 2 (1957), 1. or. (25)

²⁶ KORTAZAR, J., *Lauaxeta. Biografía política*, o.c., 10. or.: «No sabemos demasiado de las relaciones entre Urkiaga y el P. Estefanía. Parece por lo que más tarde dice Lauaxeta que supera la relación alumno-maestro».

Obidi, Tibul, Propertzi-ta (irakatsi zizkigun). Orobat erderazko elertia, inglesa, fransesa, italiarra, alemana, portugesa, katalanera-zkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurri zizkigun ugari. Erdal-izlariak, berriz, Luis de Granada, Luis de Leon, eta itz-lauzko erlijio idazleak barrena Nocedal-enganaino irakatsi zizkigun Juanjo Goi-ketxeak²⁷.

Jon Kortazarren iritziz, Lauaxetak itzuli zituen literatura-lanak kontuan hartuta, «habría que conceder a Lauaxeta (suponiendo, de lo que no existe seguridad, que las traducciones se hicieron desde la lengua original y no desde el castellano) conocimientos de inglés (traducción de Tennyson), alemán (Goethe), francés (Baudelaire, Verlaine, Maeterlinck, Sully Prudhomme, Théodore de Banville, Jammes, Lamaitre), italiano (Dante), catalán (Maragall, Verdader)»²⁸.

Non irakurri zituen Lauaxetak «heterodoxo» kontsideratuak izan ohi ziren zenbait literatoren obrak: Charles Baudelaire, Paul Verlaine...? Noiz haietaz zaletu? Loiolan, Oñan edo Bilbon jesuitetatik irten eta segituan? Lauaxetaren ikaskide izan zen Daniel Gaston jesuitak azaldu zuen, jesuita izan zen urteetan, «Lauaxetak Heine irakurtzen zuela. Bai eta Alfred de Musset, Gerra Junqueiro, Goethe, Andreiev, Dechendorf eta Homero. Gastonen ustez Homerok eragin handia du Lauaxeta baitan. Lauaxetak Leopardi oso maite zuela esaten zidan Daniel Gastonek “Il passero solitario”k eta “L’infinito”k zirrara handia egin ziotela aitortu zion Lauaxetak berak»²⁹.

Ohargarria zaigu Lauaxetaren ikaskide izandako Jokin Zaitegik, junior eta filosofo jesuitek irakurtzen zituzten olerkariak zerrendatzerakoan, ez zuela idazle-multzo heterodoxo horretatik olerkari bat ere aipatu. Kritikariek, haatik, idazle horien oihartzunak aurkitu dituzte Lauaxetaren zenbait olerkitan. Horrez gain, Urkiagak idazle heterodoxo horien hainbat olerki itzuli eta argitaratu zituen eta horrek heterodoxo horienganako Lauaxetaren oniritzia erakusten digu: «Aren garai-erteko eder-gaietan oso ikasia zen Urkiaga: irudimen ederreko, biotz-andiko ta buru argiko gaztea

²⁷ VELEZ DE MENDIZABAL, J. M., *Jokin Zaitegi*, Arrasateko Udala, 1981 eta ZAITEGI, I., «Urkiaga ta biok» in LAUAXETA, *Olerkiak*, Etor, San Sebastián, 1974, 38 eta 8. or.

²⁸ Ikus KORTAZAR, J., *Teoría y práctica de poética de Lauaxeta*, o.c., 82. or. eta j. (28)

²⁹ GARATE, G., «Lauaxeta Jesusen Lagundian», *Karnel*, 244, zenb, 2003-4, 14. or. (29)

zen; euskal-ritmuaren sena inork baino ederrago izan zuen Lauaxeta-k, nire ustetan»³⁰.

Badirudi, literatura tartekoa delarik, Lauaxeta irakurle *ausarta* izan zela. Lauaxetak Charles Baudelaireren *Fleurs du Mal* liburua (edizio zentsuratua?) irakurri zuen, baita liburu horren zenbait poema itzuli ere... eta Orixeren iritzi gogorraren kontra, Lauaxeta honela defenditu zuen Baudelaire: «Arrikada andiagorik ez zen jausiko inoiz elerti baten gainera, olerki orrena baiño... Bai edo! Baudelaire-ren olerkiak larregiko ziran. Baiña batek bere ez eban elertiz epaikatuten ‘Fleurs du Mal’ idaztia. Zileiztilari (moralista) ziren ziran irazlari (idazle) barik. Eta idaztietan zileiztasuna neurtu bear da, baiña baita elertietzazko mamiña ere»³¹.

Zernahi zelarik ere, Lauaxetak jesuitetatik zenbait europar idazle heterodoxorenganako ezagutza eta zaletasuna ekarri omen zituen, Oñatik irten eta segituan, haien olerkien itzulpenak argitaratzen hasi baitzen *Euzkadi* egunkarian: Verlaineren ‘Leuntasuna’ (*Euz*, 29.03.14), ‘Green’ (*Euz*, 30.02.14), ‘Goizparkiak’ (*Euz*, 31.03.4), ‘Euria dadi’ (*Euz*, 30.03.14), Baudelaireren ‘Izaya’ (*Euz*, 29.10.26), ‘Odol-iturrija’ (*Euz*, 30.10.12), ‘Gorespenak’ (*Euz*, 30.11.9)...

Ohartzekoa da, bestalde, Loiolako jesuiten ikasketa ofizialen artean euskara agertu ez izatea, ezta euskal idazlerik ere, urte haietan jesuiten —jesuita gehienen?— euskararekiko gutxiespena nabarmentzen diguna: non eta euskaldun hutsa zen Azpeitian! zertaz eta jesuiten sortzailearen jatorrizko hizkuntzaz eta kulturaz!

4. Euskaltzale

Lauaxeta Loiolako seminarioan bihurtu zen euskaltzale. «1924’garren urtean (Lauaxetak 19 urte zituela) “iunior” bezala latin, eladera ta elertiak ikasten ari ginen euskaldunok, euskaltzale gertatu ginen: ixileko eragile neu (Zaitegi) izan nintzen. Kaputxino ospatsu batek idatzitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz (Ami vasco), eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-egia. Leenik Ibinagabeitia-tar Andima-k eta biok irakurri genuen... irakurri-ala, auxe esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, eta euskera ikasi bear dugu. Egia esateko, ezkenuen euskera

³⁰ ZAITEGI, J., «Urkiaga ta biok...», o.c. Ikus KORTAZAR, J., *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, o.c., 84-88. or.

³¹ LAUAXETA, *Azalpenak*, «Erantzuna», *Euz*, 32.20.18.

aazturik erabat, galduxe baizik... Euskaldunen artean zabaldu genuen ixilpean. Tarteko ziren Urkiaga, geroko Lauaxeta, Goenagatar Iñaki, gero Schiller-en Wilhem Tell euskeratu zuena, (Plazido) Mujika, geroko euskal-iztegile bikaina, Larrañaga..., Argarate... Euskal-idazle ta olerkari zoragarria, Sarobe, Lesaka-koa, Estrabon-i buruz azterketa sakona eman zuena..., Martikorena... Korta anaiak..., Gaztelumendi, geroko eliz-izlari ospatsua, Zubiaga...»³².

Badirudi Lauaxetari kostatu zitzaiola euskal guriari lotzea, ikaskide izan zituen beste euskaltzaleagoen parean bederen: «Quería aires más altos que los estrechos de la lengua vasca»³³.

Euskaltzaletze-prozesuan, «Lauaxetak boladak izan zituen. Euskaltzale sutsua batzutan ta bestetan epeldu», euskaltzaletasunarenugarrek betiko harrapatuta geratu zen arte: «Baina ordurako benetako euskaltzaletasun baten mende pilpira bizkorrez ari ziren gure bihotzak taupadaka eta euskara zen gure ametsetako erregina bakarra»³⁴.

«Juventud Vasca»n Lauaxeta ezagutu zuen Miren Natxitubek kontatzen digu, «euskaraz egiten eban harek be beti. Erderara jotzen bagenduan, euskeraz erantzun. Euskera «garbixa». Asko ikasi eban. Lehenengo seminaristea izan zan; bera eta beste gazte batzuk Loiolara joan ziran, baña gero urten egin eben»³⁵.

Euskaltzaleagotze-prozesu horretan Estebanek behetik berrabiatu behar izan omen zuen:

- euskara errekuiperatu behar izan zuen: «Txikitan euzkerea itz-egina nozu, gero baña aztu yatan»³⁶;
- euskaltzaletu: «Erdal-olerkiok irakurri-ala auxa esan nion (Ibinagabeitiak) Urkiagari: «Estepan, ederto baño obeto eginda yagozak erdal-olerkiok; zegaitik eztozak euskeraz egiten». Ixilik lotu zan olerkaria eta andik orubetera, berriz agertu zitzaidan euskerazko olerki bat eskuartean zekarkidala. Arrezkero, eztut esango erderazkorik geio idatzi etzuenik, baña eukerarekin lotu zan gorputz eta anima betiko»³⁷; baita

³² ZAITEGI, I. «Urkiaga eta biok...», o.c., 6. or. (32)

³³ Aita Peli Kortak? (33)

³⁴ X. X., «Plazido Mujika», *Ob Euzkadi*, 12. alca (1981) (s. p.). IBINAGABEITIA, A., «Adiskidetasun lokarriekin», o.c.

³⁵ GOIKOETXEA, J. L. eta U., *Geldoko koplak*, Lagatzu, Zamudio, 2021, 115. or.

³⁶ LAUAXETA, *Azalpenak*, «Kirikiño», *Euz*, 32.04.17/5.

³⁷ IBINAGABEITIA, A., «Adiskidetasun lokarriekin», o.c. (37)

— azkenik muturreraino *abertzale*tu ere: «Aberrija maitatu, Jaungoikua'ren hurrengo»³⁸.

Nork esango zion Lauaxetari euskal kulturaren aldeko hautu horrek heriotza goiztiarreraino eramango zuela?

Leon Lopetegi junioratukideak honelaxe laburtu zigun euskaltzaletasunetik abertzaleratzeko **Lauaxetaren bidegurutzeta**: «Episodios curiosos de mi vida en este aspecto. Ha habido algunos que han cobrado todo su interés después de algunos años. Recordemos en primer lugar este episodio de premonición trágica, que tuvo el famoso Urkiaga (Lauaxeta), cuando estudiábamos retórica en Loyola a fines de 1923 o principios de 1924.

Había dado el entonces reciente obispo de Vitoria, Fr. Zacarías Martínez, agustino, unas disposiciones sobre la enseñanza del catecismo en su diócesis, y exigía mucha preferencia por el castellano, incluso a los niños euskaldunes.

No recuerdo los términos exactos de esas disposiciones, pero hay que hacer notar que se dieron pocos meses después del comienzo de la dictadura de Primo de Rivera, en Setiembre de 1923.

En cierta ocasión comentábamos en el recreo de la noche de uno de aquellos días de invierno lo que no considerábamos digno de acierto, desde el punto de vista del respeto a las diversas lenguas vernáculas por el bien de las almas, y participábamos en la conversación Lauaxeta y un servidor, que nos oponíamos a lo que tenía de partidista aquella disposición, y otros no euskaldunes, de cuyo nombre no me recuerdo, y que defendían más bien la postura del obispo en este punto, pero no precisamente desde el punto de vista apostólico.

Nosotros nos opusimos y tratamos de explicar todo aquello. Lauaxeta, que era muy impresionable, se excitó por lo visto más de lo que yo había supuesto.

Hay que tener en cuenta, que el poeta fue algún tiempo sonámbulo, y que por eso tuvo como compañero de cuarto al que luego fue P. Marticorena (Plazido Mujika euskaltzalea ere), del que nos acordaremos después, pues era muy sereno y forzado, por si hiciera falta en alguna ocasión enfrentarse con el Lauaxeta sonámbulo³⁹.

A la mañana siguiente a nuestra pequeña discusión, se me presentó el poeta en mi cuarto, y llamándome a la puerta, como lo hacía siempre, me contó su pesadilla de aquella noche.

³⁸ LAUAXETA, *B-beko* «Uarra».

³⁹ MUJIKAI, P., «Plazido Mujikari elkarriketa», *Argia*, 1944, 82.09.12. (39)